



Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 5a

Bazkide hori:

Elkartearen Batzar Nagusirako deia luzatu nahi dizugu, aztergaien eta 2008ko fondoarekin finantzatzeko ditugun proiektuen gaineko erabakietan parte har dezazun. Batzarra **azaroaren 27an**, osteguna, egingo dugu; Lakua 1eko 23. gelan, 13:30ean lehen deialdian eta 14:00etan bigarreanean.

Aztergaiak:

1. Aurreko Batzar Nagusiko akta irakurri eta onartu (1. eranskina).
2. 2007an onartutako proiektuen jarraipenaren berri eman.
3. Norberak lekarkeena.
4. 2008ko proiektuen bozketa eta boto kontaketa.

Deialdiari dagokion dokumentazioa eskuragarri izango duzu elkartearen web gune berria: www.zer0,7.org

Deialdira aurkeztu diren 10 proiektuak onartu dira. Honekin batera doazkizu proiektu horien laburpenak, baina osorik irakurri nahi badituzu, deitu telefono zenbaki hauetariko batera: 945 019352 (Cecilia Ceballos), 945 019759 (Pilar Bilbao).

Gogoan izango duzu bazkideok 2008-2010 aldirako estrategia aldaketa onartu genuela iaz. Hori dela eta, aurtengo fondoarekin bi proiektu mota finantzatzeko dira: %50ekin Guatemalako Sololán garatuko diren proiektuak, eta gainerako %50ekin Afrikako 15 herrialde pobreenetan -Nazio Batuen Giza Garapenaren Indizearen arabera- garatutakoak.

Deialdia aldatu egin dugunez, bozketa sistema ere zertxobait aldatu beharrean gaude. Horrela bada, bazkide bakoitzak **bi proiektu aukeratu**, bat Sololákoa eta bestea Afrikakoa, eta markatuko ditu boto-txartelean. Fonda ohi bezala banatuko da. Hau da, boto gehien bereganatzen duen proiektutik hasi eta gutxien lortu duenera, banatzeko daukagun dirua agortu arte.

Honekin batera doakizun **boto-txartela** batzarrera eraman dezakezu edo postaz bidali ondoren adierazten den helbidera. Postaz bidaltzen baduzu, gogoan izan **azaroaren 27ko 12:00ak baino lehen jaso behar dugula**.

Zer0,7 Elkartea. Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusia.
Donostia-San Sebastian, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Bestalde, Elkartearen Zuzendaritza Batzordea berritu behar dugu 2009ko ekainean egingo den batzarrean. Izan ere, Estatutuek ezartzen dute karguak hiru urtez hartuko direla eta egungo batzordekideek bete dute epe hori. Animatu nahi zaitugu batzordekide izatera. Horretarako prest bazaude, jakinaraz diezaguzu datozen hilabeteetan. Asko gustatuko litzaiguke jende berria izatea gure artean.

Bukatzeko, elkartea eratu zela 10 urte beteko dira laster; Zer0,7 1998ko abenduan inskribatu baitzen Elkartearen Erregistroan eta 1999an argitaratu baitzuen lehen deialdia. Berri pozgarria da, zalantzarik gabe, urteurren hau bazkideontzat; horregatik, zorionak guztioi eta mila esker.

Batzarrean eta bozketan parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Zer0'7ko lehendakaria

Santiago Esnaola Sukia